

AURREKONTU DUINEN ALDE EZ ATZERAPAUSURIK LAN BALDINTZETAN Gizarte zein lan arloko murrizketen aurrean mobilizazioa

2011 urtetik aurrekontuen murrizketa %7ra heltzen da Nafarroan eta %0,9ra EAEn, baina erreferentzia 2010eko urtean hartuta, murrizketa %11,6koa eta %3,8koa da hurrenez hurren¹. Edozein kasutan datuok esanguratsuak dira². Herrialde garatuenak beste norabide batean doaz, baita krisi garaian ere, BPGaren %7 inguru hezkuntzari bideratuz, nazioarteko erakundeen gomendioak jarraituz³.

Murrizketak **orokorrak** dira, baina baita **partidaren arabekoak** ere. Atal gehienetan murrizketak edota izozketak egiten diren arren, hainbat partidatan ez da honelakorik gertatzen, eta batzuetan igoera nabarmenak ere agertzen dira. Hezkuntza Sail bakoitzak bere lehentasunak ditu, bere egitasmo estrategikoak, indartu beharrekoak, eta hauek onik ateratzen dira beste lekuetan murrizketaz eginez. Adibidez, Eusko Jaurlaritzak bere egintzak publizitateko 1,8 milioi € gastatuko ditu 2012an, aurreko urtean baino %9,6 gehiago.

Hala ere, aipatu dugunez, arlo gehienetan murrizketak orokorrak dira:

Euskara. Nafarroan, euskararen zabalkuntza itotzen duen legeriak 25 urte betetzen duen honetan, Hizkuntza Zerbitzuan euskararako aurrekontua %73,2an murriztu da. Era berean, *Euskarabidea* egitasmoaren hasierako aurrekontua %43ko jaitsiera izan du martxan jartzean. EAEn arlo honetan %2ko murrizketa dago aurten, baina gobernua eratu zenetik %9,2ko murrizketa (6 miliokoa) egon da. Bi gobernuek eskolan ingelesa bultzatzeko estrategiak garatu dituzte, euskararen kaltean. Horregatik partida batzuk desagertu edo gutxitzen dira beste batzuk handitzen diren bitartean⁴.

Hezkuntza prestakuntza eta berrikuntza. 2008. urtetik prestakuntza orokorrerako aurrekontua Nafarroan %71,8 jaitsi da (%41,1 aurten); hizkuntzetako prestakuntzan eta lanbide heziketako berariazkoan oso murrizketa latzak daude. EAEn %4,8 jaisten da (2,4 milioi); banakako laguntzak desagertzen dira eta %25ean jaisten da Hezkuntza Sailak berak ematen zuena, enpresa pribatuek egiten zutenaren aurrekontua bikoizten den artean.

Aniztasunaren trataera eta hezkuntza behar bereziak. Nafarroan ez da hazkunderik egon partida hauetan, baina EAEn jaitsiera nabarmena dago, ikasle kopurua %7,4 igo den arren: etorkinen planarentzako baliabide gutxiago, orientatzaile plaza gutxiago ...⁵ Paradojikoak Lakua Eskola Inklusiboa garatzeko Plan estrategikoa garatzen ari da eta honek ez du aurreikusten ez giza-baliabideen handitzerik ez finantziario gehiagorik.

Hezkuntza Laguntzak. Bekak bi komunitateetan izoztu egin dira, gero eta ikasle gehiago dauden arren eta nahiz eta krisiaren eragina familietan gero eta nabarmenagoa den. Nafarroan jantokietako partida izozten den bitartean, EAEn %19,1 jaisten da, seguruenik kuoten igoera iragarri delako. Eusko Jaurlaritzak desagerrarazten ditu udako ingeles ikastaroak eta hizkuntza trukaketak, eta Guraso Elkarlanean laguntza %10ean murrizten du.

0-3 zikloa. Nafarroan hemen ere dago murrizketa, %3,2. Udalekiko hitzarmenen murrizketa %11,4koa da; honi gehitzen badiogu udalen egoera ekonomiko txarra, 0-3 zikloa dagoen lekuetan mantentzeko zailtasunak egongo dira, eta nekez irekiko dira berriak. EAEn “Haur Etxeak” bultzatzen dira, egoitzen eta titulazio profesionalen arloan dagoen legedia aintzat hartu gabe. Egitasmo honekin desitxuratzen da haur-eskolen sorkuntza plana⁶, “Haur Etxeetan” aritzen direnak prekaritatean utziz.

Unibertsitatea. Eusko Jaurlaritzaren UPV/EHUrako aurrekontuen egitasmoak duela 5 hilabete berak onartutako eta hiru unibertsitateen adostasuna zuen Unibertsitate Plana kolokan uzten du⁷. Eta

bitartean unibertitate pribatuen finantziazioaren kopurua mantendu egiten da. Gainera, diru-sari osagarriak ordaintzeko partida murrizten da, eta euskararen erabilera normaltzeko kontratu-programa desagertzen da⁸. Nafarroako UPNAn murrizketarik ez dago: igotzen da %6,9, baina esan behar da abiapuntua oso txarra zela.

Irakaskuntza pribatua. EAEn administrazioak batxilergoa diruz laguntzeari ekin dio (kostuaren %100ean, teorian), nahiz eta hori sistemaren lehentasuntzat ezin den hartu. Hitzartutako gelen kopurua gora doa⁹ eta finantziazio honetan berriro sartzen dira ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeak¹⁰. Gainontzeko partidetan, bigarren urtez, murrizketa handiak daude, patronalek familiei eta langileei bizkarrarazten dizkietenak¹¹. Nafarroan finantziazioa %3an jaisten da, irakaskuntza publikoan baino gutxiago.

Argi dago aurrekontu politika tamalgarri honek hezkuntza sistema biak betean jotzen dituela, baina irakaskuntza publikoa da erasorik bortitzena jasaten duena. Administrazioak berak gutxietsi egiten du irakaskuntza publikoaren oinarritzko lana gizarte eta hizkuntza kohesioan, integrazioan edota aukeren berdintasunaren esparruetan. Horregatik hainbat gauza aipatu eta salatu nahi ditugu **irakaskuntza publikoaren** arloan:

- Aurretik ere gutxiegi ziren arren, **ikastetxeetako giza baliabideetan murrizketaren bidean** jarraitzen da. Nafarroan %2,2 jaisten dira pertsonal gastuak, bigarren hezkuntzako plantilla-murrizketak finkatuz eta plantilla orokorra izotzuz. Ez dute aintzat hartzen ikasle kopuruaren hazkundea, urteko %3 ingurukoa. EAEn %1,3ko igoera engainagarria da¹²: Bi ikasturteotan ikasleen %8,2ko igoera egon da, baina plantillak soilik %0,7 hazi dira. Aurreko ratioari eusteko, 720 irakasle gehiago beharko genituzke.

- **Gero eta ordezkapen gutxiago** egiten dira ikastetxeetan eta badirudi joera hau indartu egingo dela, nahiz eta ikastetxeetan eragozpen handiak sortu eta irakasleen lan-zama handitu: Nafarroan, 2012rako partida handitu da, baina, hala ere, atal honek 2010etik %9,5eko murrizketa du; EAEn 3,5 milioi € gutxiago esleitzen zaizkio partida honi. Horregatik, ehunka interino ordezkoei lan egiteko aukerari uko egingo zaio.

- Funtzionarioen zein pertsonal laboralaren soldaten murrizketen politikari inflazioaren eragina gehitzen badiogu, **eros-ahalmenaren galera** dugu: jaitsiera %8-%9koa izan da orain arte, eta 1012an berriro areagotuko litzateke (beste 3 puntutan, seguruenik).

- **Inbertsioen urritze etengabea.** EAEn %42 (**55,6 milioi**) legealdiaren hasieratik¹³. Nafarroan mantentzerako, hornitzerako eta eraikitzerako partida %54,7 jaisten da, eta funtzionamendurakoa %30,7. Arriskuan dago etorkizunera begirako eskaintza publikoa hezkuntzaren arloan. Bi elkarte autonomoetan, gainera, udalen diru-sarreraren urritzearen eskutik, ikastetxe publikoen mantentzea kaltetuta aterako da. .

MATERIAL OSAGARRIA

1.-Hezkuntzako aurrekontuen garapena 2010-2012 (milioitan)

	2010	2011	2010-11	2012	2011-12	2010-12
<i>CFN</i>	680.384	646.216	-5,02%	601067	-6,90%	-11,65%
<i>EAE</i>	2.751.347	2.660.844	-3,28%	2645186	-0,90%	0,00%

2.-Garapena Barne Produktu Gordinarekiko

	2010	2011	2012
<i>CFN</i>	3,53%	3,08%	?
<i>EAE</i>	4,05%	3,90%	?

3.-Inbertsioak(milioitan)

		2011	2012	2011-12
<i>EAE</i>	Eraikuntzak HH-HL	30.109	23.179	-23,01%
	Eraikuntzak BH	18.889	18.403	-2,57%
<i>CFN</i>	Construc., equipam. y mto.	24.265	10.999	-54,70%
	Funcionamiento. y dotación	9.895	6.854	-30,84%

4.-Plantila EAEn, ikaslegoaren garapenarekin aldentuta

	HH-LH	BH	Guztira	Guztira	HH-LH	BH
2010	97.277	60.766	158.043	18.963	10.243	8.720
2011	100.329	65.544	165.873	18.846	10.204	8.642
2012	103.396	67.695	171.091	19.094	10.391	8.703
2011-12	3,00%	3,30%	3,10%	1,31%	1,80%	0,70%
2010-12	6,30%	11,40%	8,30%	0,70%	1,40%	-0,20%
	Ikasleak			Irakasleak		

5.-Ordezkapenak (milioitan)

	2010	2011	2010-11	2012	2011-12	2010-12
<i>CFN</i>	12.104	6.765	-44,10%	10.949	38,22%	-9,54%
<i>EAE</i>	47.094	46.600	-1,04%	43.576	-6,50%	-7,40%

6.-Pertsonal gastuak (milioitan)

	2011	2012	2011-12
<i>CFN</i>	357.369	349.388	-2,24%
<i>EAE</i>	1.188.800	1.204.800	1,32%

*Neurri handi batean aurtan 205 erlijio irakasle izan direlako tranferituak 6,3 milioiko kostuarekin.

7.-Erosteko ahalmenaren galera langileentzat

<i>CFN</i> *	EE-EP	10,11%
	EE-EP	11,09%
<i>CAPV</i> **	ES	8,07%
	EE-EP	9,06%

*Graduko osagarririk eta antzinakotasunik gabe

**Sexeniorik eta antzinakotasunik gabe..

¹OHARRAK

1. Gainera, denbora tarte horretan pilatutako KPI-IPCaren eraginagatik, benetako jaitsiera **%19,8**koa izan da Nafarroan (120 milioi €) eta **%10,2** EAEn (270 milioi).
2. Horrela, adibidez, 2010etik ikasleko gastuak murrizketa larria izan du: EAEn **6.457** €-tik **5.948**-ra (%8,5) eta Nafarroan 6.605-tik 5.627-ra (%14'81).
- ² 3. EAEn gastu honek behera egin du, 2010eko **%4,05**-tik 2011ko **%3,9**-ra, eta Nafarroan **%3,53**-tik **%3,08-ra**
- ³ 4. *Zinea Klasera, Kontseilua* desagertzen dira; jaisten dira, adibidez, EITBrekiko hitzarmena (-%71), Euskaltegien finantziazioa (1,5 milioi gutxiago), EIMA (-205)... Eta, aldiz, Hiru Eleko Marko Berrirako partida igotzen da, eta berdin atzerrian ingelesa ikasteko laguntzak, ingelesean materialak sortzeko laguntzak ...
- ⁴ 5. Inmigrazio planari lotutako indartzeak jaisten dira publikoan (9) eta pribatuan (5). 14 plaza gutxiago
- ⁵ 6. Haurreskolak arloan bakarrik 100 gehiago aurreikusten dira 2011rako (8.000) nahiz eta soilik 7.800 bete ziren, eskaera homogeneoa ez zelako.
- ⁶ 7. 11 milioitan murrizten da aurreikusitako hornidura arrunta eta 3 milioitan bai UPV/EHUrekin adostutako kontratu-programa eta bai hainbat urtetarako plana. Guztira 17 milioi, duela 5 hilabete agindu zirenak.
- ⁷ 8. Bide bakarra da antzinatasun gutxiko irakasle berrien ohiko diru-sariak duintzeko
- ⁸ 9. Hitzarmen partidaren %1,1 eta %3,8.
- ⁹ 10. Hitzartutako ikastetxeetara 579 milioi esleitzen dira, aurrekontuen %21,7; ia 10 milioi ikastetxe hauetara doaz.
- ¹ 11. Ikastetxeak krisian (-49,1%), Iraleko ordezkapenak (-17%), normalkuntza proiektuak (-38%), ikasle etorkinei laguntza (20%), berrikuntza pedagogikorako proiektuak (-64,2%) eta 0-3 (-11,1%)
- ¹ 12. Neurri batean Eusko Jaurlaritzara transferitutako 205 **erlijio-irakasleengatik**, 6,3 milioiko kostea dutenak. Gastu hauek **%2,1**ean murriztu dira 2010etik.
- ¹ 13. Obretarako eta ikastetxe berriak eraikitzeko partidak iaiztik **%19,7** jaitsi dira eta **%45** 2010etik. Inbertsioen %15 Eskola 2.0. egitasmora doa. Material didaktikoa eta altzariak %10 jaisten dira.